



MENDI IRTEEREN INFORMAZIOA

INFORMACIÓN DE EXCURSIONES

TXANTREA MENDI TALDEA



Laguntzen du
Colabora

txantreamenditaldea@gmail.com

<http://www.txantreamenditaldea.com>

<https://www.facebook.com/profile.php?id=100054594633792>

Orria z./ Hoja n. 515

2025/11/23

Zeharkaldia-Igoera/Travesía-Ascensión

Orio-Zarautz-Askizu-Zumaia. Talaia bidea.

Travesía en *Talaia bidea* entre Orio y Zumaia. Vistas de costa vasca, viñedos de txakoli ...

Talaia bidean barrena Orio eta Zumaia artean, txakolinaren mahastien zehar.

Irteera ordua-Hora de salida: **Goizeko 8:00ak - 8:00 de la mañana**

Irteera lekua-Lugar de salida: https://maps.app.goo.gl/eyMXtZgaqGqWejYf7?g_st=ic San Cristobal kalea (Plaza Txantrea nº 11.)
(Parada bus junto a centro salud)

Zailtasuna - Dificultad: Zeharkaldi/igoera ertaina-Travesía/subida moderada

Iraupena-Duración aproximada: 5-6 ordu

Igoera-jaietsiera-Desnivel: 508 m ↑ 513 m ↓

Luzera-Distancia: 15,5 Km

Beharrezko materiala-Material obligatorio: Mendirako arropa, oinetakoak. Ropa y calzado de montaña.



Orio herriko Oribarzar hondartza ondoko Txurruka aterpetxearen ondoan emanen diogu hasiera gure zeharkaldiari. Mendian gora dauden txakoli mahastietan barrena, mendi ibilaldiak Zarautz herrira eramanez gaitu. Hondartza zeharkatu ondoren, berriro gora egin eta Askizu auzo aldera egingen dugu. Mendi muinoetan diren mahastiak, txakolindegia eta kostaldeko bista ederrez gozatuta Zumaia aldera jaitsiko gara. Flysh ikusgarrien gainean dagoen San Telmo ermita eta Itzurun hondartza sonatua bisitatzeko.

Comenzamos nuestra travesía junto al albergue Txurruka situado junto a la playa de Oribarzar, en el municipio de Orio. A través de los viñedos de txakoli que remontan la montaña, la ruta de senderismo nos llevará al pueblo de Zarautz. Una vez atravesada la playa, volveremos a subir y nos dirigiremos hacia el barrio de Askizu. Los viñedos situados en los montículos, las txakolindegis y las magníficas vistas de la costa nos conducirán hasta Zumaia. Visitaremos la ermita de San Telmo y la playa de Itzurun, situada sobre espectaculares flysh.



(GR 121 E04) Talaia ibilbidea: ezagutu dezagun zertxobait.

Hondarribitik Mutrikuko Saturraran hondartzaraino doan mendi Ibilbide Luze (GR) hau garai bateko baleazaleek, zelatatzeke, erabiltzen zituzten talaietatik zehar doa eta, hortik zidorraren izena. Itsasoari begira egiten den bide honetan Jaizkibel-Ulia KBEa, Iñurritza Biotopoa, Garate-Santa Barbara KBEa eta Euskal Kostaldeko Geoparkea gurutzatzen dira; baita ere, hainbat hondartza, kala, gotorleku, herri eta auzo. Horregatik, aukera paregabea eskaintzen du Gipuzkoako natura eta kultura ezagutzeko.

(GR 121 E04) Talaia ibilbidea: Orio-Zumaia, conozcámoslo un poco.

Desde Hondarribia hasta la playa de Saturraran de Mutriku, este Gran Recorrido (GR) discurre por las atalayas que antaño utilizaban los balleneros para vigilar y, de ahí, el nombre del sendero. En este sendero, que se realiza mirando al mar se cruzan el ZEC Jaizkibel-Ulia, el Biotopo Iñurritza, el ZEC Garate-Santa Barbara y el Geoparque de la Costa Vasca; además de varias playas, calas, fortificaciones, pueblos y barrios. En definitiva, ofrece una inmejorable oportunidad de conocer la naturaleza y cultura de Gipuzkoa.



Talaian barrena Oriotik Zumaiaaraino eginen dugun ibilbidea

* Aurretik aipatu bezala, **Orion** emanen diogu hasiera gure ibilbideari. Hasierako aldapa pikoari ekingo diogu eta ibilbidean zehar ikusiko ditugun txakolin mahastiekin egingo dugun lehen topaketa izango da. Aldapa gaindituta Zarauzko Kanpinarekin eginen dugu topo. Beherantz abiatu, Zarautz aldera, eta kostaldearen ikuspegi ederra izanen dugu gure aurrean, **Zarautz** zein **Getaria**. Zarauzko Iñurritza biotopoa eta hondartza pasealekua ia osoa zeharkatuko dugu, Santa Marina ermitaraino.

* **Zarautzen**, ermita honen ondoan jarraitzen du gure bideak, goranzko galtzada batean, **Santa Barbara ermita** aldera. Menditik itsasoko paisaiatz gozatuz goaz. **Askizu auzoko** bidegurutzean ezkerrera hartuko dugu, **Garate** muinorantz, auzoa alde batera utziz. Aurrerago, beste bidegurutze batean, hainbat bide-seinale aurkituko ditugu (GR121, Talaia bidea, Santio bidea, ...). Hemen berriz ere Askizu alde batera utziko dugu eta ezkerrera hartuz **Zumaia** aldera jaitsiko gara. Zumaiaiko **Santiago hondartza** ondoan errepidearen ertzetik joanen gara. Ontziola eta portuaren ondoren zubiak zeharkatuko ditugu herrigunean sartzeko. **Amaia plazatik** gora hartuko dugu, eta itsaslabarren gainean dagoen **San Telmo ermita** eta dauzkan **flyshengatik** zein telesail batek famatu duen **Itzurun hondartza** bisitatuko ditugu.

Nuestra ruta por Talaia bidea desde Orio hasta Zumaia

* Tal y como hemos mencionado anteriormente, iniciaremos nuestra andadura en **Orio**. Comenzamos la empinada pendiente inicial y será el primer encuentro con los viñedos de txakoli que veremos a lo largo del recorrido. Una vez superada la pendiente, nos encontraremos con el Camping de Zarautz. Descenderemos hacia Zarautz y tendremos una hermosa vista de la costa frente a nosotros, tanto **Zarautz** como **Getaria**. Recorreremos el **Biotopo Iñurritza** y prácticamente todo el paseo de la playa de Zarautz, hasta llegar a la ermita de **Santa Marina**.


* En **Zarautz**, nuestro camino continúa junto a esta ermita, en una calzada ascendente, hacia la ermita de **Santa Bárbara**. Desde la montaña disfrutamos del paisaje del mar. En el cruce del **barrio de Askizu** giramos a la izquierda, hacia el monte **Garate**, dejando a un lado el barrio. Más adelante, en otro cruce, encontraremos varias señales informativas (GR121, camino de la Talaia, camino de Santiago, ...). Aquí volvemos a dejar Askizu a un lado y girando a la izquierda bajaremos hacia **Zumaia**. Iremos junto a la carretera junto a la **playa de Santiago** de Zumaia. Tras el astillero y el puerto cruzaremos los puentes para entrar en el casco urbano. Desde la **plaza Amaia**, subiremos a la **ermita de San Telmo** situada sobre los acantilados y visitaremos la **playa de Itzurun**, famosa por sus flysh y por una serie de televisión.



San Telmo ermita eta Itzurun hondartza Zumaian

Hemen duzue balizko ibilbidea. Orion hasi eta, itsasoaren ondoko mendi paisaia zeharkatuz, Zumaia herriko Itzurun hondatzen bukatu.

Aquí tenéis el posible recorrido. Desde Orio, pasando por el paisaje de montaña junto al mar, hasta la playa de Itzurun, en Zumaia.



Santiagoenea. Zuloaga etxea Zumaian



Sta. Barbara muinoa. Zarautz gainean Getarirantz



Orio herriaren ikuspegia

